

## Etorkinen inguruko astea

Irazki elkarteak  
urtea bete du ▶ 5



# Soinu tresna herrikoiek Tolosa hartu zuten goiz osoan zehar

**DENETIK** ▶ Txalaparta, dultzaina, alboka eta trikitixa entzun ahal izan ziren Musikaria astea amaitzeko ▶ 6



Ibarrako txalapartarien saioa Triangulo plazan atzo eguerdian. OLAIJA ESKITXABEL



JAIONE ASTIBIA

## Ikuskizun paregabea inguruko motorzaleentzat

**TOLOSA** ▶ Garai desberdinetako ibilgailuak ikus ahal izan zituzten Ferialekuan; gaur ere izango dute aukera ▶ 7

TOLOSALDEA ▶

## Ezkontza prestatzeko aholkuak

Janzkera, zapatak,  
gonbidapenak,  
bitxiak... ▶ HV

TOLOSALDEA ▶

## Eskualdetik eski martxa luzeetara ▶ 4



**TOLOSALDEA**  
GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

- Lanbide Heziketako Ikerketa eta Berrikuntzarako Institutua
- 2001ean, Eusko Jaularitzako Zilarrezko "Q" saria
- 6 urtez, ISO 9002 ziurtagiriarekin

**Goi-mailako zikloak: Euskaraz**

- Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- Eraikin eta Prozesu-Instalazioen Mantenimendua eta Jartzea
- Metal-Eraikuntza
- Erregulazio eta Kontrol-Sistema Automatikoak
- Administrazio eta Finantzak
- Informatika- Sistemen Administrazioa

**IZEN EMATEAK / AURREMATRIKULA:**  
**EKAINAREN 1etik 9ra**



Tfno.: 943 65 11 47 / 943 65 06 64  
Fax: 943 65 18 56

idazkaritza@tolosaldea.com  
www.tolosaldea.com  
Santa Luzia, 17 • 20400 TOLOSA



**Loatzo** **MATRIKULAZIOA**  
musika **04-05**  
eskola **IKASTURTEA**

Musikaz gozatzeraz anima zaitez!

**Epea: ekainak 1-7**

**Non matrikulatu:** (goizez, 10-12)

ANOETA: ikastolan	IBARRA: kultur etxean
ADUNA: udaletxean	LARRAUL: udaletxean
ALTZO: udaletxean	VILLABONA: kultur etxean
ALEGIA: udaletxean	IRURA: udaletxean
ZIZURKIL: Atxulondan	

**ESKAINITZA ZABALA:**

musika tailerra, tresnak, hizkuntza, tresnak, taldeak...

**Informazio gehiago: 943 670265**



UZTURRETIK  
RAMON OLASAGASTI

## Psikoanalisia

**A** mets arraroak darabilzkit azken aldian: Aralarko XIV Orduko Ibilaldia egiten ari naizela, abiadura handiko tren bat pasatzen da aldamenetik, eta gero, lurre auzoko bizilagun batzuk builaka hasten dira trenetik. Hurrengo ametsean, Felipe Printzea ageri da, erakuntzako grebalariekin batera etxebizitzak garestiegi daudela protestan... Kezkaturta, psikoanalistarengana joan naiz, eta espeziaren gainbeheraz sekulako erretolika bota dit:

«Irakurri zenuen lurre auzoko bizilagun batek DVko Ttanttak atalean azalduko keza?», hasi zait psikoanalista galdezka: «XIV Orduko Ibilaldia bezalako ekimenak txalogarriak zirela zion, baina goizeko 05:00ak ez direla orduak megafoniarekin auzo lasai hartako bakea hausteko, eta hurrengoan joateko musikarekin beste norabait. Inor ez da arrazista, baina ijito, ekuatoriar, errumaniar eta abarrekin ojo; hobe euskaldun jator bat bizilagun. Ingurumena zaindu egin behar da, baina EAeko herritarren erdiak ez daki Euskal Y-aren proiektua zertan datzan».

«Favila erregea akabatu zuen hartza baino errepublikanoagoak gara guztiok, baina gutxi-gehiago, nor ez ditu Printzearen ezkontzaren irudiak jakinmin apur batez ikusi? Nork ez ditu irentsi periodikoak —bakarra baita, askorentzat— gure printzipe eta printzesaren ezkontzari buruz argitaratu dituen gehigarri bereziak? Etxebizitzak inoiz baino garestiago daude, konturatu haiz higieziaren bulegoak zenbat ugaritu diren Tolosan?», galdetu dit berriro psikoanalistak. «Eta, bien bitartean, eraikuntzako langileek hiru aste daramatzate greban...».

«Denok maite dugu euskara, baina euskaldun petoenak ere gazteleraz mintzo dira sarri. Betirako ezkontzen gara, osasunean eta gaixotasunean elkarri laguntzeko, baina hiru bikotetik bat banatu egiten da gaur egun... Hara, Ramon: lagun batek dio gizakia, banaka-banaka hartuta, inteligentea dela, baina espezie bezala galbidera goazela, dinosauroak bezala. Nork bere zilborari bakarrik begiratuko ez balio...». Diplo dokus bat bezala, jota utzi nau psikoanalistak.



## Eho-ziri lanzaleen erakusketa Leitzako Kultur Astean

**ASTEKO IRUDIA** ▶ Aste osoan zehar Kultur Astea izaten ari dira Leitzan. Ekitaldi ugari izan dira, baina bat aipatzekotan, herriko plazan 140 eho-ziri lanzale elkartu zirenekoa aipatu

behar da —argazkian—. Beste egunetan hitzaldiak, kontzertuak, dantza, bazkaria, erakusketak eta bestelako ekitaldiak izan dituzte leitzarrek eta inguratu direnek. JAIONE ASTIBIA

**MAIXABEL LASA** ▶ TERRORISMO BIKTIMEI LAGUNTZEKO ZUZENDARIA

# «Mehatxatuta bizi direnentzat amets bakarra bakea lortzea da»

2000ko uztailan hil zuten bere senarra Juan Mari Jauregi zinegotzi ohi eta gobernadore ohi Tolosan; bi urte eta erdi darama terrorismo biktimei laguntzen Eusko Jaurlaritzatik

**JOXEMI SAIZAR**

Hitzordua egiterakoan, senarra hil zuten kafetegia ekiditen du Maixabel Lasak. Politikaz ahal den gutxiena aritzea eskatu du. Bere lanaz eta alde gizatiarrak aritzea nahiago du. Ez dakit lortu dugun.

**Zure lanak ez al dizu eragiten beti gai berari buruz pentsatzen aritzea?**

Gai honetan lan egiteak niri ere lagundu egiten didala konturatu naiz. Ni biktimia izanda, askoz hobeto ulertzen dut bestearen mina, horretatik pasatu naizelako. Harreman errazagoa izaten da jendearekin.

**Zein da lana zehazki?**

Ahalik eta biktimia gehienekin egotea zuzenean, nola senti-

zuten diren jakiten saiatzen gara eta gure laguntza eskaintzen diegu. Jende asko dago, 1968an izan zen lehen hilketatik hona. Laguntza ekonomiko gehienak Madriletik datoz. Hemen batez ere laguntza psikologikoa eta elkartasuna ematen dugu. Lan administratiboa ere egiten dugu: gutunak, lokalatan lehergailu bat jartzen dutenean espedienteak...

**Mehatxatuta daudenekin zer-bait egiten al duzue?**

Horretarako jarraipen bortxakeria salatzen dutenen bulegoa dago: bizkarzainak, e.a. Kasu asko daude. PP eta PSOEko zinegotziak, kazetariak, enpresarioak, ertzainak, epaileak... Horren jarraipena ari gara egiten Giza Eskubideen

zuzendariarekin batera. Elkarre asko daude eta horiekien ere ari gara.

**ETAren biktimek bakarrik laguntzen dituzue, ala denak?**

Biktimek kontsideratzen ditugu denak, GALekoak, BVEkoak... denak. Denekin jartzen gara harremanetan. Politikariak erabakitzen dute biktimek diren ala ez.

**Lasa-Zabala familiekin izan al zara?**

Eragozpenik ez dut beraiekin egoteko. Juan Mari bere epaiketan deklaratzeko egon zen kasua argitu behar zela uste zuelako. Botereaz abusatzea beste bezain txarra da.

**Beste elkarteekin —AVT, Bakea orain, Elkarr...— zein harreman duzue?**

Elkarlana egiten dugu, udal-txerretan lan egiteko, proposamenak aurrera ateratzeko. Foro publiko batzuk sortzea adibidez: udal bakoitzak biktimeen errekonozimendua egitea, bakearen hezkuntzan lan egitea herri horretan...

**Zenbat pertsona daude mehatxatuta Euskal Herrian?**

40.000 inguruko zifra erabili izan da. Ez ditugu kontabilizatu. Bizkarzainak jartzen zaizkie eta egoitzak babesteko ere badaude laguntzak.

**Nola bizi dira?**

Orain lasaixeago bizi dira, kale borroka baretuta dagoelako, hala ere ezin dira erlaxatu. Eguneroko erritmoa, ibilbideak, lekuak, orduak aldatu behar dituzte. Ezin da lasaitu, orduan etor daitekeelako atentatua. Juan Mariri ez zitzaion bururatuko Tolosan hilko zutenik. Ez zuen zaintzailerik, konfiantzuegia zelako. Gero jakin genuen astebeite lehenago ere saiatu zirela hiltzen.

**Hiltzaileak kartzelan daude. Zer sentitzen duzu?**

Orrialde bat pasatzea bezala da. Atxilotuta daude eta behintzat ez dituzte horrelako gauzak egingo. Eta urte batzuk han eman beharko dituzte.

**Zer sentitzen dute mehatxatuek?**

Asteburua iritsi eta hemendik joateko desioa. Aste barruan



**JON GURRUTXAGA**  
DJ BULL

«Herri bakoitza erabat ezberdina da, bakoitzak musika mota ezerberdinarekin egiten du dantza»



**JUANTXO AGIRRE**  
ARANZADIKO IDAZKARI NAGUSIA

«Gizarteak eskatzen digunari erantzuten lagunduko digu Institututak»

**IRITZIA ▶ ZULOAGA TXIKI INGURUMEN ESKOLAKO KIDEAK**

# Aste Berdearen aurrean

**E**kainaren Sean Nazioarteko Ingurumen Eguna egiten da eta Tolosako herriak badu urte batzuetako esperientzia: ingurumenarekin erlazionatutako erakusketak, hitzaldiak, egunkari ezberdinetan azaldutako artikulua, eta urte batean, gogoratzen baduzue, zaborregira zihoan kamioi batek bidetik atera eta Triangulo plazan bota zuen zama.

UNESCO erakundeak urtero gai bat proposatzen du, beharraren arabera. Orain dela bi urteko gaia, mendien kultur desberdinen eta ekosistema ahulen kontserbazioa izan zen eta iazkoa, biodibertsitatea. Tolosan, askotan, hauei eman diegu lehentasuna, baina aurtengo gaiak, alde batetik basamortuak eta bestetik arrosa-soroak paisai kulturalak eta biodibertsitateko erreserba-guneak gisa hartuta, urruti gelditzen dira kilometrotan eta gure buruetan ere eta gertuko arazo txiki-kei heltzea erabaki da aurrean: mugikortasuna, energiaren gehiegizko kontsumoa, zaborren kudeaketa eskualde mailan, ibaiaren garbitasun falta... eta Aste Berdeko egun bakoitzean, gai bati helduko diegu.

Ekintza hauen helburua, ingurumenean sortzen ari garen arazoetan arreta jartzea

eta ahal bada, gure kontzientzietan zerbait mugiaraztea izan da beti, besterik gabe. Baina agian ekintzak baino zerbait interesgarriagoa pizten ari da aurrean guzti honen antolakuntzan eta hori partaide-tza izan da.

Gaur egungo *sistema demokratikoak* inoiz baino zalantza handiagoan daude, bide berriak irekitzen saiatu behar dugu eta horretarako edozein aukera aprobetxatzen jakin behar dugu. Tolosako herria, Tokiko Agenda 21ari dela garatzen askotan irakurri dugu egunkarietan, askok bus urbanoarekin eta bidegorriarekin zerikusia duela jakin ere, baina proiektu honen gauzarik garrantzitsuenak, gure ustez, hainbat herritarren iritzia Udalera iristea izan da: herriko ume eta gazteena.

6 urtetik 16 urtetara bitarteko herritarrek, modu batean edo bestean, hasi dira herriko proiektu zehatz batzuetan parte hartzen, proiektu horiek aztertzen, emaitzak ateratzen eta alkateari proposamenak egiten eta norbaitek uste badu guretzat (parte hartu dugun hezitzaileentzako eta eskoletako irakasleentzako) zerbait sinbolikoa besterik ez dela, ez doa bide onetatik, zeren egindako lana handia izan da, heziketa arloan lortu ditugun emaitzen oso gustura gaude eta Udalak gure proposamenei erantzutea espero dugu. Eskoletako ordezkariarekin izandako ebaluaketarako bileran ondo baloratu dugu orokorrean proiektu berria (eskoletako Agenda 21) eta bata besteari entzuten, erabakiak adosten eta herri mailan konpromisoak hartzen hasiak gara.

Herriko ingurumenarekin zerikusia daukaten gai asko dira eztabaidatu beharrekoak eta Tokiko Agenda 21ek aukera ematen digu parte hartzeko. Gure esperientzia ona izan denez, nahiz oraindik demokratiaz ikasteko asko falta zaigun, herriko beste kolektiboak animatu egin nahi ditugu halako esperientzi batean murgiltzen. Tolosako etorkizuna denon ardura eta eskubidea da.

**AGENDA 21**

«Herriko ingurumenarekin zerikusia daukaten gai asko dira eztabaidatu beharrekoak eta Agenda 21ek aukera ematen digu parte hartzeko»

**PERTSONALKI ▶**

▶ Legorretan jaioa ▶ 1951eko azaroan ▶ Babilergoa ikasi zuen Tolosako Inmakulada ikastetxean ▶ Osalanean egin zuen lan

**Mendia:** Aralar. **Bidaizteko tokia:** Patagonia, Txilekoa. **Zinema:** Ez naiz asko joaten. **'Euskal pilota':** Inpresio handia egin zidan. Hiru aldiz ikusi dut. **Sukaldea:** Koadrilako sukaldari ofiziala naiz. **Beste zaletasunik?** Pintatzea, abstraktoa. Orain utzita daukat. **Tolosa.** Askok etortzen naiz. **Legorreta.** Herri berezia da, tolerantia.

**BOTEREA**

«Senarrak Lasa-Zabala kasua argitu behar zela uste zuen; botereaz abusatzea bestea bezain txarra da»



JOXEMI SAIZAR

zure lanean ari zara. Bizitza konplikatu da. Pentsa lorezain bat bizkarzainekin. Nik ezagutzen dut. Edo kamarero bat. Edo autobus gidari bat bizkarzaina ondoan duela. Tolosaldean asko daude. Biktimak eta mehatxatutak. **Su-eten batekin amets egiten al duzu?** Mehatxatuta bizi direnentzat amets bakarra bakea lortzea da. Erakundeek eta gizarteak izan behar dute garalle, ez besteak. Su etena hautsi eta berehala hil zuten Juan Mari. **Itxaropena galdu al duzu?** Itxaropena ez duzu inoiz galtzen. Aldaketa bat dago politi-

koki estatu barruan, adostasun batera iristeko alderdi guztiak. Beste jarrera bat ikusten dut. **Madrilgo martxoaren 11ko atentatuan zer pentsatu zenuen?** Gertatu zenean %99ak pentsatu genuen ETA izan zela. Horrek asko esan nahi du. Nik uste horrek ere euren ere pentsarazi egingo diela. **HZ ez dute onartu Europako hauteskundeetarako.** Onartu behar dena da epaileek esaten dutena. Baiezkoa ematen badute, aurrera. Agian positiboan izan daiteke uztea, zenbaterako apoioa duten ikusteko.

## IRAUPEN ESKIA ▶



Tolosaldeko bi koadrila hauek ibiltzen dira fondoko eskiko martxa luzeetan. Ezkerrean aurtengo irudian, Arantxa Oteiza, Josu Iztueta, Jose Luis Jauregi, Mertxe eta Txiki Plazas ageri dira. Eskuinean Edorta Andueza, Pello Artutxa, Rosa Etxeberria, Jon Miren Begiristain eta Higinio de Bernardo iaz. HITZA

## Eski martxa luzeak

Eskualdeko eskizale batzuk urtero joaten dira Europa erdialdean egiten diren martxa luze herrikoietan parte hartzera

### JOXEMI SAIZAR

Hogei urte baino gehiago badira hasi zirela. Iraupen eskia praktikatzan dute eta Europa erdialdean —eta beste leku batzuetan ere— horrelako martxa herriko luze batzuk egiten zirela jakin zuten. Milaka eskizatzaile proba batean. Behobia-Donostia herri lasterketaren pareko zerbait.

Oargi eta Alpino Uzturre mendi elkarteen inguruan mugitzen diren bi koadrila horrelako hainbat probatan izan dira partaide azken urteotan. Wordloppet izeneko zirkuitoa osatzen dute hainbat probak. Egitarauan jarraian izaten direlako, hemendik oso urruti ez daudelako eta batetik bestera distantzia laburra dagoelako, gehienetan Dolomitenlauf (Austria), Marcialonga (Italia) eta König Ludwig Lauf (Alemania) probetan izan dira. Alpen tres izeneko zirkuito txikia osa-

tzen dute hiru hauek. Frantziako Transjurassienne-n eta Suediako Vasaloppet-en ere askotan izan dira. Beste proba gehiago ere badira Europa erdialdean eta iparraldean, AEBetan, Kanadan, Japonian eta Australian. Australian hasten da zirkuitoa abuztuaren eta martxoaren artean, Norvegiatik.

### 15.000 partaide Suedian

Angel Ortiz, Josu Iztueta, Pello Artutxa, Jon Miren Begiristain, Xanti Lekuona eta Txiki Plazas dira proba horietan hainbat aldiz parte hartutakoak.

Proben luzera aldatu egiten da batetik bestera. normalean 40 kilometrotik gorakoa izaten da. Batzuetan, elurraren egoeratik moztu egin behar izaten dituzte. Modalitatea ere bai, klasikoa izaten da batzuetan, librea besteetan. Proba luzeena eta jendetsuena Suedian egiten den Vasaloppet izaten

da. 90 kilometrokoa da eta 15.000 partaidetan jarrita dute muga. Izen-ematea aurretik egin behar izaten da, zerbait ordainduz. Normalean uda pasa bezain pronto hasten dira horrelako lanetan eta batzuetan uda aurretik ere bai. Irteera antolatzeke, aurreko edizioetan lortutako denboren arabera sailkatzen dituzte parte-hartzaileak. Normalean ordu dezenteko behar izaten dituzte ibilbidea burutzeko, elurraren egoeraren eta bakoitzaren abildadearan arabera.

«Herialde haietan eskia bizi egiten dute. Adibidez Dolomitetan lau kilometro ibilbideak dituzte argizatuta. Aldagelak eta dutxak dituzte. Lana bukatu ondoren, gauze, entrenatzen dira, gu korrika edo igeri egite-ra joaten garen bezalaxe», dio Txiki Plazasek. Horrelako baldintzekin, normala da bertakoak —Europa erdialdekoak— izatea partaide gehienak. Bestela, leku askotako jendea izaten

da proba hauetan, goi mailakoak eta zaletuak. Euskal Herriko —Tolosaldekoek gain— Errenteria eta Eibarko eskizatzaile batzuk ere izaten dira partaide. Haritz Zunzunegi ere atera izan da batzuetan. Adinari buruz, partaideen artean gazte gutxi izaten direla esan behar da. Adinekoak dira gehienak, eta urte asko duen jendea ikustea arrunta izaten da. Partaide asko gero zikloturismoa aritzen dira.

### «Koadrila giroan»

«Eski konpetizioa eta ikastarotak ematen utzi ondoren hasi ginen, 1981ean, martxa hauetara joaten, koadrila giroan, auto edo furgoneta batean», dio Jon Miren Begiristainek. Europako proba gehienak —Estonia eta Norvegiakoak ezik— egin dituztela eranstu du eta. Proba hauetan sortzen den «giro polita» aipatzen dute bertan izandakoak. Izaten duten helburu

### PROBA BATZUK ▶

**Alemania.** König Ludwig Lauf. 55 km. Urtarrila-Otsaila.  
**Austria.** Dolomitenlauf. 25-42-65 km. Urtarrila. 3.000 partaide inguru.  
**Finlandia.** Hiihto. 30-60 km. Otsaila. 7.000 partaide.  
**Frantzia.** Transjurassienne. 25-46-76 km. Otsaila.  
**Italia.** Marcialonga. 25-45-70 km. Urtarrila. 5.000 partaide.  
**Suedia.** Vasaloppet. 30-45-90 km. Otsaila-Martxoa. 15.000 partaide.  
**Suitza.** Engadin. 42 km. Martxoa.

bezala proba bukatzea izaten dutela dio.

Proba hauei esker, Europako eski pista onenak ezagutzeko aukera izan dituzte eta Begiristain Jurarekin gelditzen da: «Askotan izan gara, Europako onena eta politena dela esango nuke». Suitzako laku baten gainean egiten den Engadin proba aipatzen du politenen artean. Giro aldetik berriz, Italiako Marcialonga aipatzen du onena bezala.

«Urte hauetan gero eta elur gutxiago dagoela konturatzen ari gara. Horregatik proben ibilbidea ere aldatu egin behar izan dute maiz», dio.

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albistek, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

**inkestako emaitzak:**

zer iruditzen zaizu Eusko Jaurilaritzak xakea kiroltzat ez hartzeko hartu duen erabakia?

▶ EMANDAKOAK: 79  
 ▶ ONDO: %56  
 ▶ GAIZKI: %44

GIZARTEA ▶

# Irazki elkarteak ekitaldiak antolatu ditu lehen urtemugan

Etorkinen inguruko mahai-ingurua, hitzaldiak, haur jokoak, dastaketa eta kontzertua izango dira datorren astean

JOXEMI SAIZAR

Lehen urteurrena bete du Irazki kulturazdun elkarteak eta horren inguruan ekitaldiz betetako astea antolatu du ekainaren 2tik 6ra Tolosan: mahai-ingurua, hitzaldiak, gastronomia dastaketa, haurrentzako ekitaldiak, kontzertua eta bazkaria. Ekitaldi hauen bidez bere bizimodua, ohiturak, musika, dantza, jokuak, gastronomia... ezagutzera eman nahi dizkiete Tolosaldeko biztanleei. Horrekin batera «etorkinen inguruan dauden aurreiritzi eta estereotipo asko» gainditzuten eta «migrazioek daramaten kultur dibertsitatea aberasgarria dela» azpimarratzen saiatu nahi dute elkarteak arduradunek.

Asteazkeneko mahai-inguruan etorkinek paperak lortzeko eta ondoren bere jaioterrira itzultzeko dituzten zailtasunak

aipatuko dituzte, «gizaki bezala itxaropena galtzera iritsi arte». Begoña Petxarromanek emakumearen ikuspegitik hitz egingo du eta generoaren gaia ere jorratuko du.

## Euskara ikasten

Ostegunean hizkuntz eskubiak eta kulturazintasuna jorratuko du Juan Inazio Hartsuaga Behatokitik zuzendari tolosarrak. «Euskara ikastea garrantzitsua da Euskal Herriaren errealitatea ezagutzeko eta bertan integratzeko», adierazi zuen aurkezpen ekitaldian Lucia Arenas kolonbiarra taldeko ordezkariak. Larunbatero 10:00etatik 13:00etara euskara klaseak izaten dituztela gogoratu behar da eta datorren ikastaroan 12-16 urteko gazteentzat beste talde bat osatzeko asmoa dute lehen pauso gisa, aurrerago euskal-

tegiren batera joan ahal izateko, gazte horien gurasoek eskatuta.

Ostiralean Josu Iztuetak bere bidaietan zehar ateratako diapositibak eta izandako herrialdeetako biztanleekin izandako esperientziak eskainiko ditu eta etorkinek ere bere bidaietan edukitako esperientziak azalduko dituzte.

Larunbatean hainbat herrialdeetako plater tipikoak eskainiko dituzte Irazkiko lagunek: Gineako *ebafonoa*, Saharako *cuscus*, Marokoko tea, Argentinako enpanadak, Brasilgo *cojinha*, Mexikoko pozole, Dominikar Errepublikako ogi budina, Euskal Herriko euskal tarta eta txistorra, Ekuadorreko *ceviche*, Venezuelako *arepas*, Kolonbiako platano tarta eta Peruko *papas a la guancaína*. Sarrera gisa bi euroko pezioa jarri dute. Plateren errezeptak ere emango dituzte.



Irazkiko kide batzuk ekitaldien aurkezpenean. JOXEMI SAIZAR

## EGITARUA ▶

### EKAINAK 2, ASTEAZKENA

**Mahai-ingurua.** *Inmigrazioa Euskal Herrian: ezaugarri soziologikoak eta zailtasunak.* Partaideak: Agustin Unzurrunzaga (SOS Arrazakeria), Begoña Petxarroman (Farapi). Moderatzailea: Marcos Flores (Herri Irratiko *Hitza dugu* saiokoa eta Adiskidetuak elkarteak kidea). Kultur Etxean 20:00etan.

### EKAINAK 3, OSTEGUNA

**Hitzaldia.** *Hizkuntz eskubidea eta inmigrazioa.* Juan Inazio Hartsuaga Behatokitiko zuzendaria. Kultur Etxean 20:00etan.

### EKAINAK 4, OSTIRALA

**Hitzaldia.** *Miloi bat kilometro, beste kulturekiko bilaketa eta gerturaketa.* Josu Iztueta Tolosaldeko etorkinekin hizketan. Kultur Etxean 20:00etan.

### EKAINAK 5, LARUNBATA

**Dastaketa.** Kultur anizteta gastronomia dastaketa. Kultur Etxean 11:30etan.  
**Haur jai.** Herri desberdinetako joko tradizionalak. Kultur Etxean 17:00etan.  
**Kontzertua.** Kubako Irason taldearen kontzertua plaza Berrian 23:00etan. Hainbat herritako edari tipikoak eskainiko dituzte.

### EKAINAK 6, IGANDEA

**Bazkaria.** Kulturazduna. Eskolapioen ikastetxean 14:00etan.



Irazki elkarteak hainbat irteera antolatu du Euskal Herria ezagutzeko. Argazkian, San Migelen. HITZA

**HITZA**, eskualdeko plaza  
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

**661 678 818**  
Toki aproposa iragartzeko

## MUSIKA ▶



Herriko kaleetan zehar ibili ziren dultzaineroak eta erraldoiak, buruhandiak aurretik zituztela. O.ESKITXABEL

## Goizetik kalez kale ibili ziren musikariak

Herri Musika Tresnen Topaketa egin zen atzo Udal Musika Eskolak antolatutako X. Musikaria astearen baitan

## OLAIA ESKITXABEL

Musika tresna desberdinak entzuteko parada izan zen atzo Tolosako kaleetan Herri Musika Tresnen Topaketa zela eta. Goizean goizetik eta herriko txoko desberdinetan jai giroa izan zen nagusi.

Kalez kale ibili ziren, esaterako, dultzaineroak. Inguruan, haur eta guraso ugari izan zituzten, buruhandiek eta erraldoiek egin baitzuten ibilbidea. Hamaiketako Ero Etxe elkartean egin zuten.

Kaleetan ezezik, herriko puntu desberdinetan geldialdi txokoak egin eta pieza desberdinak jo zituzten musikariek. Eguerdian, esaterako, txalapartariak, albokalariek eta trikitilariak txandaka emanaldiak eskaini zituzten.

Musikariek elkarrekin bazkaldu zuten ondoren.



Albokalariek, Trianguloan eskaini zuten saioan. O.ESKITXABEL



## Samaniegon jai!

HEZKUNTZA ▶ Urte guztian lanean jardun ondoren, atzo eguerdiartean jai egiteko beta hartu zuten, eta festa koloretsu eta anitza eskaini ere, bertan bildu zirenen gozagarri. Goseari aurre egiteko mahaiairen inguruan bildu ziren ondoren. JAIONE ASTIBIA



## Ongietorria Agirrerri

POLITIKA ▶ Ongietorria eskaini zioten herenegun Edorta Agirrerri Trianguloan. Amets Arzallus eta Sustrai Kolina bertsolariek saioa eta herriko taldeek opariak eskaini zizkieten, besteak beste. Agirrek eskertza hitzak luzatu zituen. JOXEMI SAIZAR



## Alebinak oroimenezkoan

KIROLA ▶ Hegats igeriketako alebin mailako onenak lehiatu ziren atzo Igarondo igerilekuan egin zen II. Roberto Jauregiren Oroimenezkoan; erakustaldi bikaina eskaini zuten igerilariek Igarondo Urpekoak antolatutako lehiaketan. O.ESKITXABEL

**hirukide**  
eskolaetarako  
Jesuitetarako  
gaitzerri

Batxilergo eta  
Lanbide Heziketarako  
matrikula epea ireki da

Informazio gehiago  
943 67 03 11 telefonon

**OTEGI**  
erakuntzak, s.l.

Promozioa eta  
eraikuntzak

Bizkai kalea, 2 - behea  
20400 TOLOSA  
Faxa: 943 69 71 98  
Tel.: 943 67 21 72 - Mug.: 608 77 28 01

**TXARAMA ▶**

**Trikitilariek emango diete amaiera jaiiei**

Gaur amaituko dira ostiralean hasi ziren jaiak; eguerdian, 12:00ak aldera, toka txapelketa herrikoia egingo da plazan, Beñat eta Lierni trikitilarien doinuez lagunduta. Ondoren, 14:30ean, herri bazkaria izango da elkarrean. 18:30ean, berriz, helduen jolasak egingo dituzte eta amaitzeko trikitilarien saioarekin emango zaie amaiera aurtengo jaiiei.

**TOLOSALDEA ▶**

**Kontzentrazioa deitu du ezker abertzaleak**

*Euskal Herria aitortu, errepetatu* lelopean kontzentrazioa deitu du herriko ezker abertzaleak biharko. Villabonan, Berdura plazan izango da elkarretaratzea; eskualdeko beste hainbat herritan ere burutuko dira elkarretaratzeak, hala nola, Tolosa, Alegia, Anoeta, Amezketeta... Elkarretaratzeak ohiko lekuetan eta ohiko orduetan burutuko dira.

**IBARRA ▶**

**«Emazteari jotzeagatik» atxilotua**

Emazteari jo eta honen senideei mehatatzea leporatzen diote herenegun goizean Ibarra atxilotu zuten 29 urteko marokoarrari. Atxiloteta, herenegun goizean «atxilotuaren etxean ematen ari ziren istiluen ondoren» gertatu zela azaldu dute iturri ofizialek. Marokoarraren emaztea osasun etxera eraman zuten senarra atxilotu zutenean.

**TOLOSA ▶**

**Azken partida irabaziz amaitu du Tolosak**

Urolaren aurka jokatu zuen Tolosa CF taldeak denboraldiko azken partida. 2-1 irabazi zuten tolosarrek, hala ere, «bi taldeek jokatzeko ezer ez zutenez partida eskasa» joan zela azaldu dute taldeko ordezkariak. Tolosako taldearen golak, Aieretek eta Aierbek sartu zituzten. Hurrengo urtera begira jarri da dagoneko taldea: «Gauzak hobeto joatea espero dugu».

**TELEFONOAK ▶**

**LARRIALDIAK**

▶ **112**

- Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- Asteasu.** Medikua: 69 24 23
- Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61
- Bidegoian.** Medikua: 68 11 34
- Ibarraldea.** Osasun etb: 672411
- Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29
- Tolosa.**
  - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
  - ▶ San Esteban: 00 68 00
  - ▶ Gernikako Arbola: 00 69 00
  - ▶ Amaroako dispen.: 67 26 37
  - ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdia)
  - ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
  - ▶ DYA: 67 25 36
  - ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
- Villabona-Aiztondo.** Anbulatorioa: 00 69 70
- Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

**GARRAIOAK**

- ▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
- ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
- ▶ Taxia: 67 04 20

**KOMUNIKABIDEAK**

- ▶ Galtzaundi: 65 50 04
- ▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32
- ▶ Ttipi ttpa ald.: 948 631888

**EUSKALTEGIAK**

- ▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
- ▶ Arramele-AEK: 67 12 14

**GUARDIAKO FARMAZIA**

- Gaur.** Morant, Zabalarreta, 1 (Tolosa). 943 67 38 49.
- Gimeno, A., Elbarren, 52 (Leitza). 112
- Bihar.** Iturrioz, Euskal Herria, 3. (Ibarra). 943 67 09 15.
- Gimeno A., Elbarren, 52, (Leitza). 112

**TOLOSALDEKO HITZA**

- Publizitatea.** 661 67 88 18. [tolosaldean\\_public@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info)
- Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33. [tolosa@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosa@tolosaldeko-hitza.info)
- Villabona-Aizt.** 687 41 00 22. [villabona\\_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info](mailto:villabona_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info)
- AnoetaIdea.** 687 41 00 22. [anoetaIdea@tolosaldeko-hitza.info](mailto:anoetaIdea@tolosaldeko-hitza.info)
- Ibarraldea.** 687 41 00 32. [ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info](mailto:ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info)
- Alegialdea.** 687 41 00 34. [alegialdea@tolosaldeko-hitza.info](mailto:alegialdea@tolosaldeko-hitza.info)
- Leitzaldeak.** 687 41 01 18. [leitzaldeak@tolosaldeko-hitza.info](mailto:leitzaldeak@tolosaldeko-hitza.info)

**AZOKA ▶**

**Giro ezin hobea eta alaitsua atzoko azoka jendetsuan**

Salmenta kopurua ona izan zen; perretxiko zerrenda zabala eskaini zen

PABLO ALBERDI

Oso giro alai bizi zen atzoko azokan; musika eta motoen erakusketak giro ezin hobea sortu zuten, eguraldi bikaina egin zuen, gainera.

Salmenta kopurua ona izan zen; lehenengo lekak eta kalabazinak ere ikusteko parada izan zuten bisitariek. Perretxikoen eskaintza ere zabala izan zen.

Berdura plazan, baratza-ko landareen postuetan. mugimendu handia izan zen goiz osoan.

**ATZOKO AZOKA ▶**

Zerkausia	merk.	gares.
<b>Bertako produktuak</b>		
Onddoak	22	-
Ziza	10	22
Ziza horia	20	-
Arkumea	3	3,20
Gernikako pip.	5	6
Tolosako bab.	10	12

**Produktu ekologikoak**

Udarea	1,92	2,72
Patata	1,52	-
Babarrun zuria	5,55	-
Erremolatxa	1,66	-
Ahuntz gazta	3	-

**Berdura plaza**

Lilia	1,2	-
Krabelina	4,8	-
Begonia	1	-
Udaberriko lorea	0,80	1,20

**TOLOSA ▶ IBILGAILU KLASIKOEN XI. NAZIOARTEKO ERAKUSKETA**

**Ikuskizun paregabea motor zale klasikoien gozamenerako**

Erakusketako izarren dizdirapean, lehenengo mendeko garai desberdinetako ibilgailuak daude erakusgai eta salgai ere



Indian K Featherweight motoa 1918an iritsi zen Iruñera. JAIONE ASTIBIA

**JAIONE ASTIBIA**

Ferialekuan sartzea eta mende bat atzeratzea, bapatean gertatzen da. Erakusketak areto guztia garai bateko autoz eta motoz gainezka dago, mota, kolore, tamaina, marka eta garai desberdinetakoak izan ere. Gustu guztiak asetzeko modukoak.

Salmentak ere badu bere txokoa eta, moto nahiz auto klasiko hauentzako pieza zein tresnak salgai daude; baita bestelako errelikia bitxi batzuk ere, hala nola irriatiak, erregis-

tradorak... Eta lagunartean modak bat eginez, eztarria busti nahi bada ere, horretarako aukera badago.

Kontuak kontu, erakusketako izarrek aurtengoan, Indian K. Featherweight moto bat eta Rolls Royce autoak dira, beste batzuren artean. Izan ere aipatutako moto hori 1916an egin eta bi urte beranduago iritsi zen Euskal Herrira eta oraindik ere martxan dago, bere dokumentazio eta guzti. Eta bertan dauden autorik handienak zentzu guztietan, zalantzarik gabe, Rolls Royceak dira. Aur-

ten gainera sortu zirela 100 urte bete dituzte.

Aurreko mende beteko historiarri ere errepasoa ematen zaio, bertan dagoen bi denborako motoen erakusketarekin. Hamarkada bakoitzeko bat dago ikusgai.

Baina bertan dauden moto nahiz autoak, txukun asko ezarrita daude. Bitartean, Hego Euskal Herriko lau hiriburuak elkartuz, gerra aurreko motoz egindako 1.000 kilometroko *Non Stop* frogako partaideak ere iristen joan ziren atzo, lagun ongiatorri gozoa jasoz.

**iragarki laburrak ▶**

**ALOKAIRUA**

**Taberna.** Orexako taberna alokatzen da. 943 68 20 29.  
**Zelaia.** Negutegiatarako bi hektareako zelaia alokatzen da. 943 65 00 81 (eguerditan deitu).

**Harpidedunei banatua ▶ 2004ko maiatzaren 30a, igandea ▶ II. urtea**

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



berceina

**20**

holzena

**13**

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albizur, Alegia, Alkiza, Alzo, Ametzeta, Ansoa, Balarriain, Berastegi, Edoain, Herrialde, Iruña, Iruñea, Leizorua, Lizartza, Orensain, Orens, Tolosa, Vilabona, Zuzkiri

Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jauriaritza. Kultura Saila



**HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA**  
 (zalantzak, harpide egiteko...)

**943 30 43 46**

**ZORION AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
 Jon Gallego Zubillaga  
 (Tolosa). Gaur 8 urte. Zorionak eta ondo pasa ebekoen partetik.



**URTE ASKOAN**  
 Zorionak, Itziar (Txarama)

**HITZA, zorion agurren tarte**  
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:  
**HITZAren egoitzara**  
 (Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)  
 Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!



**ZORIONAK**  
 Kiker Urkia (Anoeta).  
 Gaur zure jaunartzea. Zorionak eta ondo pasa.



**URTE ASKOAN**  
 Xabat Urkola Etxabe (Anoeta).  
 Ondo pasa. Ebekoen partetik, batez ere aita, ama eta Unai.



**ZORIONAK**  
 Maider Zabala eta Jokin Tolosa (Amezketeta).  
 Ondo pasa zuen jaunartze egunean lagun eta familiakoekin. Ebekoen partetik.



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Ibarra.** Izaskungo jaietako zikiro jatea. 14:30ean Izaskunen. Bazkarirako txartelak salgai daude Atarin, Zubiaurren, Sendi-Ekintzan, Izaskun tabernan eta Izaskun jaietxean. Prezioa: helduentzat 15, eta haurrentzat 7 euro.

**Larraul.** Janaria potetan sartzeko ikastaroa. Astelehenean, 18:30etik 20:00etara Katilutxulo elkartearen. Bihar lehen eguna (ekainaren 28a arte).

**Leitza.** XXIV. Eskulangintza Erakusketa. 11:00etan hasita. Egun guztian zehar herriko musikariak eta taloak izango dira salgai.

**Tolosa.** Ibilgailu Klasikoen X. Nazioarteko Azoka Ferialekuan. Tolosako Club Motor-Retro-k eta Tolosako Udalak antolatuta; 09:00etatik 20:00etara, Ferialekuan.

**Tolosa.** Txirritaren omenaldia. 12:00etan, Uzturren.

**Tolosa.** Autobus bereziak Santa Klaratik Asuncionera. Bihar, ordu erdiero, laurdenetan eta laurden gubxietan.

**MENDI IRTEERAK**

**Alegia.** Anboto mendira irteera Mendi Asanbladaren eskutik.

**Albiztur.** Herriko mugak ikusteko ibilaldia Kultur Astearen barruan; 08:00etan herriko plazatik abiatuta, Benta Berri, Santutxo, Santa Marina... Ondoren, hamaiketako **Tolosa. Asteburuan zer?** programaren baitan, Uzturrera igotera 09:00etan Santa Klaratik. 11:00etan hamaiketako eta triktilariak Uzturren. 15:00etatik 17:00etara Gorritiren abereen erakusketa eta paseoak pottokan.

**TOLOSA KUP**

**GAUR ▶**

- ▶ 14:30: Maskor/Mattin Gaizto.
- ▶ 15:15: Errekalde/Yogurines.
- ▶ 16:00: Neskak/Eguzki.
- ▶ 16:45: Kafe Iruña/Orbela.
- ▶ 17:30: Astesuarra/T.apalantz.
- ▶ 18:15: Ieltxu/A ke no 10.
- ▶ 19:00: Kupela/Kontra kien j.
- ▶ 19:45: Garikoitz/Magrebi.
- ▶ 20:30: Maradonas/Azkar. (Uzturpe kiroldegian).

**ZINEMA**

**Tolosa.** *La mala educacion* (Pedro Almodovar). Gaur, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean. Bihar, 19:30ean eta 22:30ean.

**DENDA HAUEK Tolosaldeko HITZAren LAGUNTZAILEAK DIRA**  
 Egin itzazu zure erosketak bertan

-Pottoko Haur	-Arri Oinetakoak	-Imen Bitxitegia
-Jantziak	eta Konponketak	-Pressto Tintoreria
-Nerea Lentzeria	-Desgaste	-Oñativia
-Mikel Izagirre	Oinetakoak	Lurrindenda
-Ileapaintzaileak	-Aralar Kirolak	-Elola Altzariak
-Iriarte Lentzeria	-Muebles Garces	-La Vasconia
-Berezi Neurri	-Poxpolin	-Axular Oinetakoak
-Bereziak	Haur Jantziak	-Ugarte Bitxidenda
-Factory	-Oski	-Bitxilore
-Elite Kirolak	-Garikano 1815	-Juan Luis Bitxitegia
-Bazar Amiano	Azpiko Arropa	-Ezenarro Lehoak
-Kopibat	-Amaia Lentzeria	-Kantikak arropa
-Cid Bitxitegia	-Kiara Bitxitegia	denda
-Lizarribar	-Poxpolin	
Oinetakoak	Enmarkazioak	
	eta Opariak	
	-Milar Electro-	
	Hogar	

**HITZAren HARPIDEDUN TXARTELAREN %5\*-eko BEHERAPENA IZANGO DUZU ZURE EROSKETAN.**  
 (Martxoetik ekainera)  
**EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN!**

\*Promozio hau ez zaie beste beharapenei gehituko. Eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da.





## ‘BAI, NAHI DUT’

Egun handirako prestaketa ugari burutu behar izan dituzte ezkongaien: argazkiak atera, arropa eta oinetakoak aukeratu, bitxiak erosi, orrazkera egin, gonbidapenak...

# EGUN HANDIA PRESTATZEN

Ezkontzako argazkiak ateratzera herri txikietara joateko joera zabaltzen ari da; irudiei gero eta garrantzi handiagoa ematen diote ezkongaiak eta familiek

Bizitzako egun garrantzitsu eta zoriontsuena izan ohi da ezkontzaren eguna. Ezkontzen direnentzat ezizki, sentimenterako eta laguntzarik festa berezia izaten da, baina horretarako, egun handi hau ongi prestatu beharra dago, denboraz gainera.

Guztia, bikoteak ezkontzako erabakia hartzen duenean hasten da: une horretatik aurrera jarriko da bikotea ezkontze eguneko zehetasun guztietan pentsatzen.

Gaur egun, ohikoa da elkarrekin bizitzeko izan ondoren ematea urrats hori, bikoteak ondo ezagutu nahi du elkar horrelako pasoa bat eman aurretik. Lehen, ordea, ezkontze ondoren ezagutu nahi du elkar horrelako pasoa bat eman aurretik. Lehen, ordea, ezkontze ondoren ezagutu nahi du elkar horrelako pasoa bat eman aurretik.

Ezkontza, zibilze edo elizaz, nolaz izango den pentsatzea datur ondoren, hala ere erabakia hartu aurretik normalean pentsatu izaten da hau bikoteak. Badiotuki gaur egun berriro hurbilatu gara eta tradizioan lenera eta elizaz ezkontze aukeratan dutela gogoratu.

### Jaletze aukeraketa

Jaletzearen etorri ohi da ondoren. Jaletzea gik nahi dugun egun libre izatea zailagoa izaten da eliza aurkitzea baino, horregatik aukeratzeko da lehenabiz. Maitatea eta iraila birtarkeo hilabeteak izaten dira zailenak lekua aurkitzeko jende gehienak hilabete hauak aukeratzeko baimen ezkontzako. Horregatik, askok beste hilabete bat aukeratu beharra izaten dute.

Aukeratzeko den ezkontze lekuak esanahi berezia izaten du. Tradizioz izaten da, gainera, andregaiaren herria ezkontzea.

Gozize edo arratsaldeko izango den ere erabaki behar da eta ondoren etorriko da gonbidatuen zerrenda prestatzea.

Andregaiak bere egun bere-

zian printzea bezala joan nahi izaten du aldarera bere gizona izango denari balezketa ematera eta horretarako ditore jantzia joango da, ezkontze soinekoarekin. Ama eta ahizpak baldin baditu guztiak joan ohi dira andregaiarekin soinekoak aukeratzeko laguntza.

Andregaien soinekoetan aukera zabala dagoena, eta zehin soineko nahi den oso argi izaten ez denez, batean eta batean ibili behar izaten dute gustuak aurkitu arte. Guretzat, tradizioari jarraitu, eztingo du ikusi bere emate izango dena soineko ezkontze soinekoak duzela, baina zorte berraz ekerri balezketa.

Bestealde, senargaiak, eman gero jantzia aukeratzeko bere amaren laguntza izaten du, hala ere andregaiaren soinekoak aukeratzeko baino errazagoa izaten da.

Ezkontza aurreko asteetan dau delarik, jaletxera joango dira ezkongaiak beraien gurasoekin aukeratu duten menua dastatzera.

### Argazkiak eta bideoa

Ahaztu nahi izango ez duten eguna izango da hau eta argazkiak edo bideo grabaketa dandere horretarako. Klax argazki dendako Josu Otazegi argazkilariairekin anbera argazkiak eskatzen dira gehien. Gipuzkoan, ezkongaiak argazkiak ezkontze aurretik ateratzeko ohitura dago eta familia erekin, ezkontze eta gero. Argazkien artean hutsik egin ezin dutenak tartaren ebakitzeara eta lehen dantzarenaz izaten dira.

Bikotearen argazkiak ateratzeko lekuak berri aukeratu egin dira, Donostiaiko Aiete eta Miramar jauregiaren argazkiak ateratzeko zegoen modan lehen, baina orain Gipuzkoako herri txikietan egiten dira, bertako baserriak eta mendiak atzetan dituztelarik.



# OSAGARRI AUKERA HANDIA


Zapata klasikoak izaten dira; bitxietan orijinaltasuna bilatzen da

Ezkongaiak eramango dituzten jantziak aukeratu ondoren horiekin ondo doazan zapatak behar ditu orain bai andregaiak eta baita senargaiak ere. Eraman ohi diren zapatak nahiko klasikoak direla dio Tolosaiko Lizarribar oinetako dendako arduradunak Leire Usandizagak.

«Andregaiaren kasuan, marfil koloreko zapatak eramaten

dira gehien, punta irtia eta ta-koi linarekin. Beti ere, kontuan hartu behar da andregaiaren somekoaren kolorea zapataren kolorearekin bat egiteko. Gizonaren zapata, berriz, lokarri-dun zapata beltza izaten da kasu gehienetan», dio Usandizagak.

Ezkongaiak ezizki, ezkontze egunaren gonbidatuek ere apain joan nahi dute eta hone-



tan ematen dituzten oinetako-

ek paper garrantzitsuak dute. «Lehen ez zegoen ezkontzara hain prestatutik jantziak joera, gaur egun ordea, eta emakumeak bereziki, osakuntzarako Gizonaren kasuan berriz, ez da hain orokorra, eta ez dira hainbeste prestatzen», dio Lenzek.

Behin ezkongaiak jantzia eta zapatak aukeratu dituztenen, beste osagarri berezi batean pentsatzen hasi behar dira, ezkontza-erantzean. Zapaten kasuan ez bezala, erantzean berezia izatea eskatzen dela dio Cid bitxigileko Mari Luzek. «Ezkongaiak beraiantzat egindako moduko ezkontza erantze bat nahi izaten dute, erantze berezi eta desberdin baten bila etortzen dira. Biri-lante bat edo hainbat izaten dituzte, metal nabarmenak eta urte txuria ere asko ematen dau, dio Cid bitxigileko arduradunak.

Andregaiarena eta senargaiarena, biak berdinak izan ohi dira; neskarikaren multtaren izena eta elkar ezagutu zuteneko eguna, «egin ditugun grabatuen artean berezia iruditzen zaizkizue, gaur egun ordea, eta emakumeak bereziki, osakuntzarako Gizonaren kasuan berriz, ez da hain orokorra, eta ez dira hainbeste prestatzen», dio Lenzek.

Baina ezkontza erantzez gain, andregaiari oparia erosi diezkieke senargaiak bitxigilean. Belarriak edo lepo-koak opartu ohi zaizkio; lepo-koetan berilantekunak eramaten dira eta ez lehen erantzen ziren perlatunak. Senargaiarentzat berriz, erlojuak izan daitezke opari egokiak.

**IBARRA**  
papirmeria  
5000a gutxienezko erreserbak  
Tel. 943 67 22 51 Fax. 943 67 22 50  
Osatze, 1800hean • IBARRA

**KARMELE**  
• Ileapaindegia • Illegiak  
San Frantzisko, 25 • TOLOSA • Tel. 943 65 26 02

LURRINDEGIA ETA EDEBARTASUN ZENTRUA  
**MIREN SUARTE**  
• Depilazio  
• Buzko, aharkiako eta organo epilo  
• Makiage  
• Buzkoaren epilazioa  
EMAITZA HARRIGARRAK  
Tel. 943 65 27 12  
943 65 27 12

**ILEAPAINDEGIA**  
Aurrez ordutua  
**FELIX**  
Ilearentzako tratamendu bereziak  
Tel. 943 65 27 12  
Etxeak: 943 69 39 52 - Ondre: 943 69 18 24

**URRUPA**  
autobusak  
666 49 50 10 (24 orduak)  
943 30 50 50 (garajesak)  
943 30 50 60 (garajesak)

**LIKAZIARRIBAR**  
"noaekin?"  
hankin\_gorladi@hotmail.com  
Pintor Lekuona, 2  
943 65 24 30  
TOLOSA  
GORDUEGA  
• Mendak: 12.000 / 20.000 h.  
• Mendak: 13.000 / 20.000 h.  
• Oinetak: 500 / 20.000 h.  
• Oinetak: 500 / 20.000 h.

**ERLOJUDENDA** **BITXITEGIA**  
**CID**  
Hurbildu...eta sartu!!  
Tel.: 943 65 27 12 • Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA

**RELU**  
Ileapaindegia-ostetika  
Erron 1 delialek • Villabona  
Tel.: 943 66 62 92

**IRIARTE**  
Jaltetza  
• FAMILIARTEKO EZKONTZAK  
(70 pertsonentzat)  
• JAUEN BEREZIAK  
• MENE BEREZIAK  
• FAMILIARTEKO BAZKARIAK  
Ezkontze eguneko eskatzen dituzten guztiak.  
Tel. 943 683 078. BEROR

**WELLA**  
Ezkontzearako arrazkera bereziak  
Etxeak: 3 • Ibañeta • IBARRA  
Tel. 943 67 22 51

**KIMU**  
HAUR DENDA  
Leizta, 2 • TOLOSA  
Tel.: 943 673 669

**LIZARRIBAR**  
OINETAKOAK  
Aroslegieta kalean • TOLOSA

**KLISK**  
Argazki Erreportaiak  
San Frantzisko, 6  
943 11 85 45 • TOLOSA

**Berezi**  
NOLU BEREZIAK 4444  
ZURE EZKONTZARAKO SOINEKOAK PRESTATZEN DITUGU  
Herriroko kalea, 3 • TOLOSA  
Tel.: 943 67 49 65

**ANDREGAIENTZAKO**  
AZPIKO ARROPA, KORPINOAK, BODIAK, 2 PIEZAK...  
GALTZERDI, LIGADUNAK, LIGUEROAK.  
Errementari kalea 2/g • TOLOSA  
Tel.: 943 67 16 30

OLATZ LIZARRA ▶ IFNI ILEAPAINDEGIKO ARDURADUNA

# «NESKEK ILE LUZEA UZTEN DUTE»

Eskarmentu handia du ezkongaiak orrazten; soinekoa duenean joaten omen zaio andregaiia «horrela orrazkera eta makillajea errazago aukeratzen baita»



Olatz Lizarra bere ileapaindegian emakume bat orrazten. IÑIGO TERRADILLOS

Ezkontzako egunean ahalik eta apain eta ederren egotea da ezkongaien nahia, eta honetan, ematen duten jantzi eta zapatez gain garrantzi handia du aukeratzen den orrazkerak ere. Villabonako Ifni ileapaindegiko arduradunak, Olatz Lizarrak eskarmentu handia du gizonak eta emakumeak orrazten eta gaur egun ezkongaiak ematen dituzten orrazkerari buruz hitz egin digu.

**Noiz hasten da andregaiia ezkontz egunean emango duen orrazkera prestatzen?**

Ezkontzako soinekoa hartzen duten egunean etorri ohi dira ileapaindegira, orrazkera eta makillajea aukeratzea errazagoa baita soinekoa jantzita. Probak egiten ditugu eta azkenean gehien gustatzen zaiona edo hobekien geratzen zaiona aukeratzen da. Gero, ezkontzako egunean, goizean goiz etortzen dira berriro eta orrazkera prestatu, makilatu eta manikura egiten diegu eta ondoren soinekoa jaztera joaten dira.

**Zein izaten da gehien ematen duen orrazkera**

Normalean, neskek ile luzea uzten dute, ezkontz egunean

ezkontzako lekuan ondo moldatuko diren jakiteko. Gonbidatuen bat kanpotik badator lo egiteko lekua aurkitzeko ere garaz ibiliko dira horrela.

Ezkontzara gonbidaturik daudela jakinarazteko gonbidapenak banatzen dira. Hauek aukeratu eta prestatzera inprimategietara joan ohi da.

Graficas Ibarra inprimategiko Aitorrek dionez, ezkongaiak joaten zaizkionean ez dute argi izaten zein eratako gonbidapenak nahi dituzten.

«Erakusgaiak uzten dizkiegu hainbat gonbidapenetako adibideekin eta horrela beraiek gehien gustatzen zaizkien aukeratzen dituzte eta azkenean batetik eta bestetik ideiak hartuz beraien gonbidapena osatzen dute».

Gonbidapenean askok beraien argazkiak jarri ohi dituzte; argazki hauek ezkondu behar duen bikotearenak edo txikitako argazkiak ere izan daitezke.

Ezkontza baino hilabete le-

henago etortzen direnak badira, baina hala ere, bikoteak normalean denbora gehiagorekin prestatzen dituela gonbidapenak dio Graficas Ibarrrako Aitorrek, sei hilabetetik gora geratzen direnean izaten delarik arruntena.

Gonbidapenak egitearen kostua, bestalde, faktore askoren araberakoa da. Aukeratzen den orri motaren arabera garestiagoa izango da, baita erliebeak edo bestelako berezitasunak baditu ere; horrela, gonbidapen bakoitzak 0,50 eurotik 2 euro arteko prezioa izan dezake. Kontuan hartu behar da noski gonbidatuak zenbat izango diren, eta honi inprimaketaren gastua batu beharko zaio.

Hala ere, badira ezkongaiak beraiek egun horretako gonbidapenak egiten dituzten kasuak ere; horretarako irudimena erabili behar da, eta noski, horrelako gauzak egiteko trebezia izatea ezinbestekoa da.

bildurik eramateko asmoarekin. Hala ere, orohar orrazkera nahiko sinpleak ematen dira. Ikutu bereziak ere egin ohi dira; gaur egun gehien jartzen direnak loreak izaten dira, eta andregaiak berak ekartzen ditu guk ipintzeko.

**Senargaiak ere ileapaindegira joateko ohitura al dute?**

Ezkontz egunean joaten diren senargaiak gutxi izaten dira. Azken ukituak ematera etortzen dira: orraztu, patilak konpondu... Ez dago orrazkera berezirik eskatzeko joera gizonen artean.

**Orazkera ezezik badira kontuan hartu behar diren beste zerbitzu batzuk ere...**

Makilatu ere egiten ditugu. Ezkontza aurreko egunetan, soinekoa soinean dutela etortzen direnean aukeratzen da makillajea. Soinekoaren kolorearen arabera aukeratuko dugu tonua eta begietako makillajearen kolorea. Gainera, ez da makillaje arrunta izaten. Ohikoa baino iraunkorragoa izan ohi da, egun osoan iraun behar baitu eta kontuan hartu behar da argazki asko egingo dizkiotela eta kontaktu handia izango dela. Oinarri berezi bat jartzen zaio indar gahiago izan dezan... Manikura egiteko ere eskatzen digute. Gaur egun ematen dena manikura frantsesa izaten da.

**Orazkera eta makillajea berezia izanik, prezioak ere bereziak izango dira...**

Guztia gutxi gorabehera 55 euro inguruko kostua izaten du. Makillajea berezia izaten da eta baita orrazkera ere eta horregatik izaten dira orrazkera edo makillaje arruntak baino garestiagoak.

**Egun berezi honetarako ileapaindegira joaten direnak ezkongaiak ezezik gonbidatuak ere izaten dira. Zein da gehien eskatzen dutena?**

Denetarik eskatzen dute. Ile bildua eskatzen dute askok, beste batzuk berriz, ile motza ematen dute era nahasian.

**Ukituak ematen dira, baina gure artean ba al da buruan kapela emateko ohiturarik?**

Ez dugu kapela emateko joera. Hala ere, kapela ematea aukeratzen dutenek ile bildua jartzeko eskatzen digute eta normalean baino bajuagoa izan ohi da.

**Asko prestatzen al da jendea ezkontzetara joateko?**

Jendea prestatzen da baina ez gehiegi. Orazkera sinpleak ematen dira eta eta makillajeari ere berdin gertatzen da. Emaitza naturalak nahi ditu jendeak.

## GONBIDAPENAK PRESTATZEN